

8

Denboraren araberako egozpena

8.1 Arau orokorra

8.2 Arau bereziak

8.1 Arau orokorra

Neurri handi batean, sarrera eta gastuen bitartez erabakitzen da zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ordaindu behar duen amaierako kuota.

ERNE: sarrerak eta gastuak aitortzen dira batzuk sortzen eta besteak gertatzen diren zergaldietan. Hau da, ez da kontuan hartzen zein momentutan ordaindu edo kobratu den.

Zehazki, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- **Lanaren eta kapitalaren etekinak** jasotzaileak exiji ditzakeen zergaldiari egotziko zaizkio.
- **Jarduera ekonomikoen etekinak** Sozietateen gaineko Zergaren araudiak ezarritakoaren arabera egotziko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak jasotako berezitasunak eragotzi gabe.
- **Ondare irabazi eta galerak** ondare aldaketa gertatu den zergaldiari egotziko zaizkio.
- **Egoitza atzerrira aldatu eta zergaduna hilez gero**, aurrerago jasoko den irizpidea erabiliko da.

8.2 Arau bereziak

Arau orokorrarekin batera, badira bederatzi arau berezi:

1. Errenta osorik edo zati batean ordaindu ez bada, errenta jasotzeko eskubidea zeinek duen edo zein kopurutan jaso behar den **judizialki** erabaki zain zegoelako, epaia irmo bilakatzen den zergaldiari egotziko zaizkio ordaindu ez diren kopuru horiek.
2. **Zergapekoari leporatu ezin zaizkion arrazoi justifikatuak** tarteko badira, lan etekinak exijigarri izan ziren zergaldia ez den beste batean jasotzen direnean, hari egotziko zaizkio (exijigarria izan zirenekoa). Horrela gertatzean, aitorpen-likidazio osagarri bat egingo da zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekar-gurik ezarri gabe. Etekinak jasotzen diren egunetik zerga hau aitortzeko hurrengo epea amaitu arte doan tartean aurkeztu beharko da aitorpena.
Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako egoera gertatzen denean, etekinak epailearen erabakia irmo bilakatzen den zergaldian izango dira exijigarriak.
3. Laneko araudian aurreikusitakoaren arabera, **langabeziaren prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen bada**, aukera horretaz baliatu izan gabe prestazioa jasotzeko eskubidea izango zuen zergaldi bakoitzaren artean banatu eta egotzi ahal izango da. Egozpena zergaldi bakoitzean egitekotan, ordainketa bakarreko modalitatean izan ez bazen, prestazioa jasotzeko eskubidea izango zuen denboraren arabera banatuko da proportzionalki.
4. **Kobrantsa eta ordainketen egozpen irizpidea.** Beren jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko zuzeneko zenbatespen erraztuaren modalitatea erabiltzen dituzten zergadunek aukera izango dute sarrera eta gastuen egozpen tenporala egiteko kobrantsa eta ordainketa irizpidea erabiliz, baina beti ere honako baldintza hauek betez:
 - Sarrera edo gastuen zerga sailkapenean inolako aldatarik ez eragitea.
 - Aitortzaileak kobrantsa eta ordainketen irizpidea aukeratu duela adieraztea eragina izan behar duen ekitaldiko aitorpena aurkeztean.

- Denboraren araberako egozpen irizpideak aldatzea ez ekartzea berekin gastu edo sarreraren bat konputatu gabe gertatzea. Horrelakoetan, denboraren araberako egozpen irizpidea aldatu aurretik egoera erregularizatu beharko da.
- Egozpen irizpidea bera izatea irizpide hori aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren ondorioz sortutako sarrera eta gastu guztietarako.

Aitorpenean hala adierazten denean onartuko du Zerga Administrazioak kobrantsa eta ordainketen irizpide hau. Gutxienez, hiru urteko epean eutsi beharko zaio aukerari.

Aukera honek bere eraginkortasuna galduko du baldin eta, aukera hori egin ondoren, zergadunak zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntari jarraituz zehaztu behar badu etekin garbia.

5. **Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketen kasuan**, zergapekoak eragiketa horietan izandako errentak egotzi ahal izango ditu proportzionalki, kobrantsak exiji ditzakeen neurrian.

Eragiketak epeka edo prezio geroratuarekin egiten direla jotzen da, horien kobrantsa bere osoan edo zatika egiten denean ordainketa desberdinen bidez, baldin eta ematearen edo eskura jartzearen eta azkeneko ordainketaren epemugaren arteko denbora urtebetetik gorakoa bada.

Epeka edo prezio geroratuarekin egindako eragiketa bat osorik edo zati batean ganbio letrak jaulkiz ordaintzen denean eta horiek epemugaren aurretik irmo eskualdatzen direnean, eskualdaketa izan den zergaldiari egotziko zaio errenta.

Inoiz ere ez dute tratamendu hau izango, eskualdatzailearentzat, biziarteko edo aldi baterako kontratuetatik etorritako eragiketek. Ondasunak eta eskubideak biziarteko edo aldi baterako errenta baten trukean eskualdatzen direnean, errenta hura erabaki zen zergaldiari egotziko dio errentadunak ondare irabazia edo galera.

6. **Dibisa** edo atzerriko moneten saldoa adierazten duten kontuetan izandako diferentzia positiboak edo negatiboak, beren kotizazioetan izandako gorabeheraren eraginez, egin den ordainketa edo kobratu den uneko zergaldiari egotziko zaizkio.
7. **Errenta balioetsiak**, era berean, ustez gertatu diren zergaldiari egotziko zaizkio.
8. **Bizitza aseguru kontratuaren inbertsioaren arriskua hartzaileak bereganatua duenean**, polizari atxikitako aktiboek zergaldiaren hasieran eta amaieran duten likidazio balioaren arteko diferentzia zergaldi bakoitzeko **kapital higigarriaren etekin gisa** egotziko da. Egotzitako zenbatekoak gutxitu egingo du kontratu horietan diru kopuruak jasotzetik sortutako etekina.

Zirkunstantzia hauetako bat gertatzen den kontratuetan, ez da aplikatuko denboraren araberako egozpenaren erregela berezi hau:

- a) Hartzaileari ez ematea polizak eragindako inbertsioak aldatzeko ahalmena.
- b) Hauek izatea hornidura matematikoen inbertsio gaiak:
 - Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak, kontratuan aurrez ezarriak, baldin eta:

- Erakunde horiek Inbertsio Kolektiboko Erakunde deiturazko azaroaren 4ko 35/2003 Lege xedatutakora egokituta badaude.
- Erakunde horiek Europako Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an onartutako 85/611/EEE Zuzentzararen babesa badute.
- Aseguru entitatearen balantzean berezita adierazitako aktibo multzoak, baldintza hauek betetzen badira:
 - Momentu guztietan aseguru entitateak erabakiko du zein aktibo sartzen den berezita aktibo multzo desberdin bakoitzean; ondorio horietarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izango dute entitate horiek, aktibo multzoaren arrisku profilari edo bestelako zirkunstantzia objektiboei buruz aurrez erabakitako irizpide orokorreari lotuta bakarrik.
 - Hornidura teknikoan inbertsioak jaso ditzaketen aktiboetan inbertitu behar dira hornidurak, eta aktibo horiek azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeko Erregelamenduari buruzkoak, 50. artikuluan jasotzen dituenak izango dira, ondasun higiezinak eta eskubide erreal higiezinak izan ezik.
 - Aktibo multzo bakoitzeko inbertsioek dibertsifikazio eta sakabanaketa mugak bete beharko dituzte, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeko Legearen Testu Bateratuari buruzko martxoaren 5eko 6/2004 Errege Dekretu Legegileak, haren Erregelamenduari buruzko azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak eta hura garatzeko ematen diren gainerako arauak izatera orokorreaz jasotakoaren arabera. Dena den, aktibo multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertu behar da haien helburua denean Europar Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean burtsako edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzera zuzenduta dagoen inbertsio politika bat garatzea.
 - Hartzaileak ahalmen bakarria izango du, alegia aseguru entitateak aseguruaren hornidura matematikoa aktiboen zein multzo berezitan inbertitu behar duen aukeratzeko ahalmena. Inoiz ez du parte hartuko multzo berezita bakoitzaren barruan hornidura horiek zein aktibo konkretutan inbertituko diren erabakitzerakoan.
- Kontratu hauetan, hartzaileak edo aseguratuak kontratuaren espresuki izendatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundearen edo aktibo multzo berezituaren artean aukeratu ahal izango du polizan jasotako zehaztapenei jarraiki, eta inoiz ere ezin izango da berezitasun singularrik ezarri hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.
- Aurreko baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete behar dira.

9. Kapital higiezinaren etekinak kobrantza gertatzen den zergaldiari egotzi behar zaizkio.

Zer egin behar da egoitza atzerrira aldatuz gero?

Zergaduna atzerrira aldatzen badu egoitza eta zergadun izateari uzten badio, egoitza aldatu aurreko tokian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarengatik aitortu beharreko azkeneko zergaldiari dagokion zerga oinarrian jasoko dira egozteko dauzkan errenta guztiak, erregelamendu bidez finkatzen diren baldintzetan. Hala gertatzen denean, autolikidazio osagarria egingo da, zigorrik, berandutza interesik eta inolako errekar gurik gabe. Aitorpen hori hiru hilabeteko epean aurkeztuko da, egoitza aldatzeagatik zergadunak zergadun izateari uzten dionetik aurrera.

Eta zergaduna hilez gero?

Zergaduna hilez gero, aitorpena egin beharreko azkeneko zergaldiko zerga oinarrian jaso beharko dira egozteko dauden errenta guztiak.

Autore eskubideen ustiapena lagatzea

Autore eskubideen ustiapena lagaz lortzen diren etekinak direnean, baldin eta urte batzuetan sortu badira, zergadunak haien konturako aurrerapena aukeratu ahal izango du eskubiak sortuz doazen neurrian.

ERNE: inola ere, denboraren araberako egozpen irizpidea edo etekin garbia kalkulatzeko metodoa aldatzeak ez du berarekin ekarriko gastu edo sarrera bat konputatu gabe geratzea edo berriro beste ekitaldi bati egoztea. Horrela gertatuz gero, lehendabizi, aitortu gabea edo beste ekitaldi batean aitortua erregulatuko da eta, bigarrenik, egozpen irizpidea aldatuko da.